

IRAKASLEAK

• EPE 2020. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA.

Dagoeneko, epaimahai batzuk kalifikazioak argitaratu dituzte. Kontsultatu dagokion "Epaimahaiaren Iragarki-taula". Erreklamazioak on-line aurkeztu behar zaizkio dagokion epaimahaiari.

• IKASTURTE HASIERAKO ESLEIPENAK 2021-2022

- **Maisu-maistrak (karrerako funtzionarioak):** lanpostuak eskatzeko epea, ekainaren 28ko 14:00etatik ekainaren 29ko 14:00etara.

- Esleipenen behin-behineko ebazpena, uztailaren 2an.

- Erreklamazioak: uztailaren 2ko 14:00etatik uztailaren 6ko 14:00etara.

- **Bigarren Hezkuntza/HEO/Artek/Musika eta Arte Eszenikoak (karrerako funtzionarioak):** Beste lurralde historiko batean lanpostuak hautatzeko eskabidea aurkezteko epea: uztailaren 5etik 7ra.

- **Ordezko gaien abuztuko eta iraileko esleipenak:** soilik bi fase horietarako Lurralde Historikoa eta lanaldi-mota aldatzeko epea, uztailaren 5etik 7ra.

GOGORATU!!! 2011ko uztailaren 5eko agindua bertan behera geratzen dela eta 2020ko ekainaren 1eko agindua indarrean dagoela. Agindu horrek abuztuko eta iraileko **esleipenen aplikazioan** eta **plazak esleitzeko irizpideetan eragina du.**

- **Haur eta Lehen Hezkuntzako ordezkogaien lanpostuen egonkortasuna:** egonkortasunerako eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda, uztailaren 5ean.

- Erreklamazioak: uztailaren 5eko 9:00etatik uztailaren 6ko 14:00etara.

- Egonkortzeko eskubide dutenen behin betiko zerrenda, uztailaren 12an.

STEILASek egonkortasuna eta ikasturte hasierako esleipenen **hitzaldiak antolatu ditu.** Aforo kontuak tarteko, **lehentasuna afiliatuek izango dute.** Izena emateko azken eguna **uztailak 2, ostirala, goizeko 11:00ak.**

DONOSTIA: Uztailaren 5ean, **bi txanda**, 11:00etan eta 12:00etan. Hezkuntza, Filosof. eta Antropologia_HEFA2(Oñati plaza,3) **GIP Izena eman.**

GASTEIZ: Uztailaren 6ean, 11:00etan, Salburuako gizarte etxeko areto nagusian. **ARA Izen eman.**

BILBO: Uztailaren 7an, **bi txanda**, 10:00etan eta 12:00etan STEILASeko egoitzan. (Jose Maria Eskuza 1, 1esk). **BIZ Izen eman.**

Hitzaldien ondoren, egonkortasun prozesuko zenbait dokumentazio lagungarri, STEILASen web orrian eskuragarri jarriko ditugu.